



Urriaren 13an Nafarroako Gobernuak argitaratu zituen neurriak zirela eta, Giltxaurdi UKIko lehorreko ikastaroak gibelatuta gelditu ziren. Gaur egungo egoera zein den ikusita, ezin ditugu jarduerak orain arteko planteamendu berarekin eskeini. Hori dela eta, jarduerak eman ahal izateko planteamendu berri bat prestatu dugu:

-Azaroaren 9an hasiko dira ikastaroak.

Kirol-jarduera motak eta ordutegia, irailean egindako eskaintzan atera ziren taldeen berak izanen dira.

Kirol-jardueretan izena emateko prozedura:

-Jarduerak egunka eta erreserba bidez eskeiniko dira, hau da, erabiltzaileak eguneko klasea erreserbatuko du aldi oro.

-Erreserbak www.giltxaurdi.eus webaren bidez egingen dira edo telefonoz.

- Erabiltzaileak izena eman dezake edozein kirol-jardueran.

- Erreserbak gehienez 7 egun lehenago eta gutxienez 24 ordu lehenago egin beharko dira.

- Erreserba bat deuseztatzeko, 48 ordu lehenago abisatu beharko da.

- Erabiltzaile bakoitzak erreserbatzen ahal ditu saioak inolako gutxienez gabe hilabetean.

- Erabiltzaile bakoitzak erreserbatzen ahal ditu egunean saio bat gehienez, astean bi saio gehienez eta hilabetean 8 saio gehienez.

- Norbaitek gehienezko saio kopurua baino saio gehiago erreserbatu nahi badu, 24 ordu lehenago taldean tokia izanez gero erreserba egin dezake.

Ikastaroen saioen prezioa eta ordainketa:


-Helduendako ikastaroen prezioa:

Giltxaurdi UKIn urteko abonamendua dutenek saio bakoitzeko 5€, eta abonamendua ez dutenek saio bakoitzeko 10€.

- Haurrendako ikastaroen prezioa:

Giltxaurdi UKIn urteko abonamendua dutenek, saio bakoitzeko 4€, eta abonamendua ez dutenek saio bakoitzeko 8€.

- Erreserba egiten duen pertsonak, erreserbatutako saioak ordainduko ditu.



- Erabiltzaileak erreserba bat bertan behera utz dezake inolako kosturik gabe erreserba ordua baino 48 ordu lehenago abisatzen badu (telefonoz edo emailaz). Ez badu abisatzen, sesioa kobratuko zaio.

- Erreserbatu diren saioak asteka ordainduko dira kontu-helbideratze bidez.

OHARRAK:

-Saioa aitzinat ateratzeko, taldea osatua egon beharko da (5 lagun). Taldea osatzen ez bada, Giltxaurdi UKIk Saioa bertan behera uzteko aukera izanen du.

-Indarrean dauden arauen arabera aldatu daiteke saioetako pertsona kopurua, eta horren ondorioz, saioen prezioa.